

Donostia eta Biarritz lotzen dituen autobus zuzena 3000 bidaiarira iritsi da



Iñigo García, San Sebastián Shops-eko Gerentea; Marisol Garmendia, Garapen Ekonomikoko Zinegotzia; Javier Hurtado, Merkataritza eta Kontsumoko Sailburua; Christine Bertrand, bidaiari saritua; Eider Calderón, Donostia Turismoko Zuzendariordea eta Elena Moreno, Merkataritza Zuzendaria

Garapen ekonomikoko zinegotzigoak eta San Sebastian Shops-ek 3000 bidaiariari 200 euroko txeketa eman diote Donostiako saltokian gastatzeko

Donostia, 2021eko abuztuaren 25a

Donostia eta Biarritz lotzen dituen autobus zuzena **oso harrera ona** izaten ari da bi hirietan, **uztailaren 14**ean martxan jarri zenetik. Hilabete batean **3000 bidaiarira** iritsi da zerbitzua, eta horrek eragin positiboa izan du Donostiako merkataritzan eta ostalaritzan. **Marisol Garmendia Garapen Ekonomikoko zinegotziak** adierazi duenez, *"Oso pozik gaude ekimen honekin; izan ere, bi hiriak onuradun atera gara bisitarien trukearekin eta, batez ere, hiriko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan izaten ari diren inpaktua oso positiboa da. Zerbitzu hau Donostiako ekonomia suspertzen laguntzen duen beste tresna bat da guretzat, bisitarien kopurua handituz gero, gehiago kontsumitzen bait da denda, taberna eta jatetxeetan. Uda oso positiboa izaten ari da, eta bisitarien kopurua oso ona"*.

Donostiako eta Biarritzeko turismo-erakundeek hilabeteak daramatzate ezaugarri komun ugari dituzten bi hiri marka turistiko bakarraren pean elkartuko dituen sustapen turistikoko **lankidetzak eta estrategia komuna** lantzen, indarguneak batuz eta publiko berriak lortuz.

Lehenengo ekintzak **uztailaren 14an jarri ziren martxan**. Marka turistiko berriaren "*Donostia - Biarritz: bi hiri, helmuga bat*" webgunea kaleratuz, eta Donostia eta Biarritz 60 minututan lotzen dituen autobus zuzena martxan jarritz.



Bi hirietan harrera ona izaten ari den egitasmoak, **Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen**, **Gipuzkoako Hotelen Elkartearen** eta **San Sebastián Shopsen** babesa dauka; gainera, **Basquetour-en** eta **Donostiako Sustapenaren** laguntza jaso du.

Arrakasta hori ospatzeko, **Sustapen Ekonomikoko zinegotzigoak** eta hiriko merkatarien plataformak, **San Sebastian Shopsek**; Turismoa eta Ekonomiaren Garapena arloen arteko lankidetzaren bidez, **200 euroko balioa duen txeki** bat eman diote 3000. bidaiariari. Saria, San Sebastian Shops plataformari atxikitako, tokiko saltokietan kontsumitzeko aukera izango du irabazleak.

Dos ciudades,
un destino

Donostia
izantzen
hartzen
zona

SAN SEBASTIAN
BIARRITZ

3.000

BIDAIARIA - PASAJERO/A - PASSAGER

Deux villes,
une destination

 Donostia
San Sebastián

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa
Consejo de Impulso Económico

 donostiasustapena
fomentosansebastian

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 SS
SAN SEBASTIÁN
SHOPS

metza handia
aren parte-
gain, hiriko